



## **Baztango udal esparruan euskararen erabilera eta sustapena arautzen dituen ordenantza**

*Nafarroako Aldizkari Ofiziala,*  
2011ko maiatzaren 2koan, 82. alean.

[http://www.navarra.es/home\\_eu/Actualidad/BON/Boletines/2011/82/Anuncio-34/](http://www.navarra.es/home_eu/Actualidad/BON/Boletines/2011/82/Anuncio-34/)

Baztango Udalak, 2010eko ekainaren 7an egin osoko bilkuran, hasiera batean onetsi zuen Baztango udal esparruan euskararen erabilera eta sustapena arautzen dituen udal ordenantza.

Onespenaren erabakia 2010eko 114. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, irailaren 20an, eta jendaurreko aldiaren aurkeztutako alegazioak ebatzi ondoan, bidezko da ordenantza hori behin betiko onetsi eta osorik argitaratzea, behar diren ondorioak izan ditzan, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan, maiatzaren 31ko 15/2002 Foru Legearen bidez aldatutako hartan, xedatuarekin bat.

Baztanen, 2011ko martxoaren 14an.-Jarduneko alkatea, Santiago Aldaco Aleman.

### **SARRERA**

Historikoki euskara Baztango berezko hizkuntza izan da eta egun ere baztandar gehienen ama hizkuntza eta ohiko erabilera hizkuntza da.

Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legeak, abenduaren 15ekoak, bere bortzgarren artikuluan, Baztan ere sartu zuen euskara (gaztelaniarekin batera) ofiziala duten Nafarroako udalerrien artean.

Baztango Udalaren eta Batzar Orokorraren xedea da udaleko zerbitzu guztietan euskararen erabilera arautzea eta udalerrian euskararen erabilera sustatzea, herritarren hizkuntza eskubideak bermatu eta Baztanen nortasuna eta ondare kulturala babestu eta sendotzearen.

## ***Ordenanza municipal reguladora del uso y fomento del euskera en el ámbito municipal de Baztan***

*Boletín oficial de Navarra,*  
de 2 de mayo de 2011, nº 82

[http://www.navarra.es/home\\_es/Actualidad/BON/Boletines/2011/82/Anuncio-34/](http://www.navarra.es/home_es/Actualidad/BON/Boletines/2011/82/Anuncio-34/)

*El Pleno del Ayuntamiento de Baztan en sesión celebrada el día 7 de junio de 2010, aprobó inicialmente la Ordenanza Municipal reguladora del uso y fomento del euskera en el ámbito municipal de Baztan.*

*Publicado el Acuerdo de aprobación en el Boletín Oficial de Navarra número 114, de 20 de septiembre de 2010, y resueltas las alegaciones presentadas durante el plazo de exposición pública, se procede, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 325 de la Ley Foral 6/1990, de la Administración Local de Navarra, modificado por la Ley Foral 15/2002, de 31 de mayo, a la aprobación definitiva de la citada Ordenanza, disponiendo la publicación de su texto íntegro, a los efectos procedentes.*

*Baztan, 14 de marzo de 2011.-El Alcalde en funciones, Santiago Aldaco Aleman.*

### **INTRODUCCIÓN**

*Históricamente el euskera ha sido la lengua propia de Baztan y actualmente también la lengua materna de la mayoría de baztandarras, así como la lengua de uso habitual.*

*La Ley Foral 18/1986, del 15 de diciembre, en su artículo quinto referente al euskera, incluye a Baztan entre los municipios de Navarra que tienen el euskera, junto con el castellano, como lengua oficial.*

*El objetivo del Ayuntamiento de Baztan y la Junta General es regular el uso del euskera en todos los servicios municipales y fomentar la utilización del euskera en el municipio, para así garantizar los derechos lingüísticos de la ciudadanía y proteger y afianzar la identidad y el patrimonio cultural de Baztan.*

Xede hori dutela, Baztango Udalak eta Batzar Orokorrak euskararen erabilera bereziki begiratuko dute, hizkuntza horren alde jokatzeko irizpidean oinarriturik, udalerrian ofizialak diren bi hizkuntzetatik euskara baita, tokiko hizkuntza berezkoa izanda ere, hainbat gizarte esparrutan ahulena eta sustapen berezia behar duena, bertze hizkuntza ofizialaren egoerarekin berdinduko bada.

Baztango Udalak araudi hau prestatu du aipatu xedea erdiesteko tresna egokia izanen delakoan, eta, horren eraginkortasunaren mesederako, juridikoki ordenantza forma eman dio.

### **I.-Aplikazio esparrua.**

1. artikulua. Ordenantza hau Baztango Udalaren menpeko zerbitzu, instalazio eta bulego guztietan aplikatuko da, bai berak kudeatuak izan, nola bertze hirugarren batek kudeatzeko esleituak izan.

### **II.-Hizkuntzaren erabilera orokorra.**

2. artikulua. Baztango Udalak eta Batzar Orokorrak oro har, euskara erabiliko dute, ahoz zein idatziz, bere barneko jardura administratiboetan nola bere harremanetan, ondoko artikuluek ezarritakoaren arabera.

### **III.-Barne erabilera.**

3. artikulua. Izaera administratiboko barne prozedurak euskaraz edota ele bitan eginen dira, euskarari lehentasuna emanez.

4. artikulua. Itzulpenak egitea langile bakoitzaren eginkizuna da. Hori errazteko, administrazio prozeduran erabiltzen diren idazkien eredu normalizatuak prestatuko dira.

4.1. Bi hizkuntzen trataera orekatuaren alde, itzulpen sistematikoa erabili ordez, lehentasunezkoa izan da hizkuntza ofizial bakoitzean zuzenean eta jatorriz idatzitako testuak sortzen ahalegintzea.

4.2. Baztango Udalaren menpeko organoek erabiltzen dituzten inprimakiak euskaraz edo ele bietan eginen dira.

*Con esa finalidad, El Ayuntamiento de Baztan y la Junta General cuidarán especialmente el uso del euskera, teniendo el criterio de actuar a favor de dicha lengua, puesto que de las dos lenguas que son oficiales en el municipio, el euskera, a pesar de ser la lengua propia local, es la más débil en diferentes ámbitos sociales y necesita de una especial promoción, si se desea que su situación se iguale a la de la otra lengua oficial.*

*El Ayuntamiento de Baztan ha preparado esta normativa en el convencimiento de que se trata de un instrumento adecuado para lograr el citado objetivo y, para mejorar su efectividad, le ha otorgado forma jurídica de Ordenanza.*

### **I.-Ámbito de aplicación.**

*Artículo 1.º Esta ordenanza se aplicará en todos los servicios, instalaciones y oficinas dependientes del Ayuntamiento de Baztan, tanto si son gestionados directamente por él, como si ha sido adjudicada la gestión a un tercero.*

### **II.-Uso general de la lengua.**

*Artículo 2.º El Ayuntamiento de Baztan y la Junta General utilizará el euskera, con carácter general, tanto oralmente como por escrito, en sus procedimientos administrativos internos y en sus relaciones, del modo que disponen los siguientes artículos.*

### **III.-Utilización interna.**

*Artículo 3.º Los procedimientos internos de carácter administrativo se realizarán en euskera o en bilingüe, dándole prioridad al euskera.*

*Artículo 4.º La labor de traducción es responsabilidad de cada trabajador/a. El punto de partida para ello debe residir en la elaboración y uso de modelos normalizados para el procedimiento administrativo.*

*4.1. Con el objetivo de favorecer un tratamiento equilibrado de ambas lenguas, se dará prioridad a la búsqueda de textos escritos directa y originalmente en cada una de las lenguas oficiales, en lugar de realizar una traducción sistemática.*

*4.2. Los impresos de los diferentes órganos dependientes del Ayuntamiento de Baztan se realizarán en euskera o en bilingüe.*

5. artikulua. Euskara lehentasunez erabiliko da Baztango Udalaren menpeko zerbitzu, instalazio zein bulegoetako errotulu eta seinaleetan, paperen idazpuruetan, gomazko zigiluetan, tinbre zigilatu edo antzeko elementuetan; ibilgailu, lan-tresna, edukiontzi, hesi eta parkimetroetan; baita langileen uniformeak identifikatzeko hitzetan eta gisa bereko bertzelako ezaugarri guztietan ere.

6. artikulua. Programa informatikoen eta Baztango Udalaren menpeko zerbitzu, instalazio zein bulegoetan erabiltzeko eskuratzen den material orok, euskaraz eta gaztelaniaz funtzionatzeko egokituta egon behar dute, bai eta bakoitzaren eskuliburuak ere.

6.1. Euskarazko bertsioa txukuna eta erabilgarria izanen da, ez gaztelaniazkoaren egokitzapen hutsa. Eta, beharrezkoa izanez gero, euskara teknikariak gainbegiratuko ditu bi bertsioak, egokiak eta ulergarriak izan daitezzen.

6.2. artikulua. Ordenagailuetan euskarazko bertsioa lehenetsiko da (sistema eragilea eta gainerako softwarea).

7. artikulua. Internet eta intranet sareak.

7.1. artikulua. Baztango Udalaren ardurapean diren Internet eta intranet sareetako edukiak, oro har, euskaraz eta gaztelaniaz kontsultatzeko moduan egonen dira.

7.2. artikulua. Udalaren webgune(eta)ra sartzean, euskarazko bertsioa agertuko da lehenbizi, eta orri horretan bertan egonen da gaztelania eta gainerako hizkuntzak hautatzeko aukera, horrelakorik badago.

7.3. artikulua. Internet eta intranet sareen bidez izapideak egiteko aukera ematen denean, izapide horiek euskaraz eta gaztelaniaz egiteko moduan egonen dira.

7.4. artikulua. Udaleko zerbitzuen helbide elektronikoek euskarazko izena izanen dute.

#### **IV.-Erakunde publikoekiko harremanak.**

8. artikulua. Baztango Udalak euskaraz edo ele bietan

*Artículo 5.º El euskera se usará con preferencia en todos los rótulos y señalizaciones, membretes o encabezados de documentación, sellos de goma, sellos de timbre o elementos similares de los servicios, instalaciones y oficinas dependientes del Ayuntamiento de Baztan, así como en vehículos, utillaje, contenedores, vallas, parquímetros, identificación de los uniformes de los y las trabajadoras y cualquier otro distintivo similar.*

*Artículo 6.º Los programas informáticos y todo el material que se adquiera para su utilización en los servicios, instalaciones y oficinas dependientes del Ayuntamiento de Baztan, estarán adaptados para poder funcionar en euskera y en castellano, al igual que los manuales de instrucción de cada uno.*

*6.1. La versión en euskera será adecuada y útil, no una simple adaptación de la que está en castellano. Si fuera necesario, el técnico de euskera supervisará las dos versiones, para que sean adecuadas y comprensibles.*

*6.2. En los ordenadores se dará prioridad a la versión en euskera (sistema operativo y resto de software).*

*Artículo 7.º Redes de internet e intranet.*

*Artículo 7.1. Los contenidos accesibles desde internet e intranet que sean responsabilidad del Ayuntamiento de Baztan, deberán poder ser consultados, como norma general, en euskera y en castellano.*

*Artículo 7.2. El acceso inicial a los contenidos web del Ayuntamiento deberá ser a la versión en euskera, en la cual constará el enlace correspondiente a la versión en castellano y otras lenguas, si procede.*

*Artículo 7.3. En los casos en los que se posibilite la realización de trámites a través de internet e intranet, deberá existir tanto la opción en euskera como en castellano.*

*Artículo 7.4. Las direcciones de correo electrónico del Ayuntamiento se denominarán en euskera.*

#### **IV.-Relaciones con instituciones públicas.**

*Artículo 8.º El Ayuntamiento de Baztan redactará*

idatziko du, betiere euskarari lehentasuna emanaz, euskara ofiziala den lur eremuetako administrazio publiko nahiz erakunde ofizial guztietara igorri edo zuzentzen duen dokumentazioa, Nafarroako Foru Komunitatekoak nola Nafarroatik kanpokoak izan.

9. artikulua. Baztango Udalak, oro har, ele bietan idatziko du, betiere euskarari lehentasuna emanaz, euskara ofiziala ez den lur eremuetako administrazio publiko nahiz erakunde ofizial guztietara igorri edo zuzentzen duen dokumentazioa, Nafarroako Foru Komunitatekoak nola Nafarroatik kanpokoak izan.

10. artikulua. Baztango Udalak eskatuko du euskaraz edo ele bietan igor diezaiotela Nafarroako Foru Komunitatekoak nola Nafarroatik kanpokoak diren Administrazio Publiko nahiz erakunde ofizialetatik jasotzen duen dokumentazio guztia.

11. artikulua. Kanpotik bidalita, Baztango Udalak jasotzen dituen dokumentu guztiak ez dira bertzerik gabe itzuliko. Dokumentua aztertu eta bideratu behar duen pertsonak dokumentu hori ulertzeko hizkuntza gaitasunik ez duela egiztatzen denean, dokumentua laburturik emanen da eta, ezinbertzekoa dela ziurtatzen denean soilik, itzuliko da.

## **V.-Administratuekiko harremanak.**

12. artikulua. Baztango Udalaren menpeko zerbitzu, instalazio eta bulegoetako langileek eskuarki euskaraz eginen diete herritarrei ahozko agurra edota lehen harrera, buruz burukoa, telefono bidezkoa nola ikus-entzunezkoa izan. Hala ere, harrera euskaraz egin ondotik, herritarrek beraiek hautatu hizkuntza ofizialean jarraituko dute hortik aurrerakoan.

13. artikulua. Baztango Udalaren menpeko zerbitzu, instalazio eta bulegoetan sortzen diren herritarrendako informazio oharretan, ahoz zein idatziz, megafoniazko mezuak barne, euskarari lehentasuna emanen zaio.

14. artikulua. Baztango Udalak udalerrian nahiz Euskal Herriko bertze edozein herritan bizi diren pertsona fisiko nahiz juridikoei zuzendutako komunikazioak, oro har, ele bietan eginen ditu.

*en euskera o en bilingüe, dando siempre prioridad al euskera, la documentación que dirija o envíe a todas las administraciones e instituciones oficiales sitas en territorio donde el euskera sea oficial, tanto de la Comunidad Foral de Navarra, como de fuera de ésta.*

*Artículo 9.º El Ayuntamiento de Baztan redactará en bilingüe en general, dando siempre prioridad al euskera, la documentación que dirija o envíe a todas las administraciones e instituciones oficiales sitas en los territorios de la Comunidad Foral de Navarra, como de fuera de ésta donde el euskera no sea oficial.*

*Artículo 10.º El Ayuntamiento de Baztan solicitará que toda la documentación que le sea remitida por parte de otras administraciones públicas y organismos de la Comunidad Foral de Navarra como de fuera de ella, lo sea en euskera o bilingüe.*

*Artículo 11.º Los documentos remitidos desde el exterior al Ayuntamiento de Baztan, no serán traducidos de forma indiscriminada. En los casos en los que se compruebe que la persona llamada a examinarlo y tramitarlo no cuente con el grado de capacitación lingüística necesaria para su comprensión, se realizará un resumen de su contenido, y sólo cuando resulte imprescindible se procederá a su traducción.*

## **V.-Relaciones con las/os administradas/os.**

*Artículo 12.º Los/as trabajadores/as de los servicios, instalaciones y oficinas dependientes del Ayuntamiento de Baztan, atenderán en primer término a las/os ciudadanas/os en euskera, en general, presencialmente, por vía telefónica, así como de forma audiovisual. De cualquier modo, después de realizar la acogida en euskera, los/as trabajadoras/es proseguirán la relación en la lengua elegida por las/os ciudadanas/os.*

*Artículo 13.º En todas los servicios, instalaciones y oficinas dependientes del Ayuntamiento de Baztan, las advertencias para informar a las ciudadanas/os, tanto orales como escritas, incluidos los mensajes de megafonía, se realizarán dando prioridad al euskera.*

*Artículo 14.º Las comunicaciones que dirija el Ayuntamiento de Baztan a personas, físicas o jurídicas, que residan en el municipio o en cualquier localidad de Euskal Herria, en general,*

Baztango Udalarekin harremanak euskaraz bakarrik izan nahi dituztenei, Udalak eskubide hori bermatuko die.

15. artikulua. Edozein pertsona fisiko nahiz juridiko Baztango Udalari idatziz euskaraz zuzentzen bazaio, Udalak hizkuntza horretan erantzunen dio; eta gaztelaniaz zuzentzen zaionari, oro har, euskaraz eta gaztelaniaz.

16. artikulua. Baztango Udalak inprimakiak euskaraz edo ele bietan eskainiko dizkie herritarrei, betiere euskarari lehentasuna emanez.

17. artikulua. Baztango Udalak onartuko ditu euskaraz nahiz gaztelaniaz bidaltzen zaizkion idatzizko komunikazio guztiak.

18. artikulua. Euskarri fisiko bereizietan eginen dira agiri, inprimaki, jakinarazpen eta komunikazioak; batzuk euskara hutsean eta besteak ele bietan.

## **VI.-Erakunde pribatuekiko zein hirugarren pertsonetikiko harremanak.**

19. artikulua. Baztango Udalak bertze hirugarrenei manatzen dizkien azterlanak, ikerketak, proiektuak edo antzeko lanak euskaraz edo ele bietan aurkeztuko dira, horiek pertsona fisiko nahiz juridikoak izan.

20. artikulua. Baztango Udalarentzat ari diren esleipendun eta emakidun enpresek, bai eta ustiapen mistokoek ere, ordenantza honek ezartzen dituen irizpideen arabera erabiliko dute euskara, eta horrelaxe jakinaraziko da zehatz-mehatz kontratuko agirietan.

21. artikulua. Udalerrian zerbitzuak emateko bertze erakunde publiko zein pribatuekin hitzartuak dituen hitzarmenetan, Baztango Udalak herritarrei bermatuko die haiek hautatzen duten hizkuntza ofizialean zerbitzua jasotzeko eskubidea, eta begiratuko du langileak elebidunak izan eta materialak ele bietan egon daitezen.

22. artikulua. Udalak izenpetzen dituen kontratazio agiriak, oro har, euskaraz edo hizkuntza bietan idatziko dira.

*se harán en bilingüe. A aquellos que deseen mantener relaciones en euskera exclusivamente con el Ayuntamiento de Baztan, éste les garantizará ese derecho.*

*Artículo 15.º Cualquier persona física o jurídica que se dirija por escrito al Ayuntamiento en euskera, éste le responderá en esa lengua; y al que se dirige en castellano, en general, de modo bilingüe.*

*Artículo 16.º El Ayuntamiento de Baztan, ofrecerá a las ciudadanas/os impresos en euskera o bilingües, aunque dando prioridad al euskera.*

*Artículo 17.º El Ayuntamiento de Baztan aceptará las comunicaciones escritas tanto en euskera como en castellano.*

*Artículo 18.º Se realizarán en soportes físicos separados documentos, impresos, notificaciones y comunicaciones sólo en euskera o en forma bilingüe.*

## **VI.-Relaciones con entidades privadas y terceras personas.**

*Artículo 19.º Las investigaciones, proyectos o trabajos de índole similar que el Ayuntamiento de Baztan encargue a terceros, siendo estas personas físicas o jurídicas, se presentarán tanto en euskera como en castellano.*

*Artículo 20.º Las empresas adjudicatarias o con concesión por parte del Ayuntamiento de Baztan, así como las de explotación mixta, harán uso del euskara ateniéndose a los criterios que recoge esta ordenanza, y aparecerá de forma explícita en los documentos referentes a la contratación.*

*Artículo 21.º El Ayuntamiento de Baztan garantizará el derecho de los/as habitantes de Baztan a recibir los servicios en la lengua oficial que estos elijan, teniendo en cuenta que los/as trabajadores/as y los materiales sean bilingües, en las actividades y servicios prestados mediante contratos con entidades públicas o privadas en el Municipio.*

*Artículo 22.º Los documentos de contratación firmados por el Ayuntamiento en general serán redactados en euskera o en bilingüe.*

## **VII.-Ohar, argitalpen, iragarki, errotulazio eta jarduera publikoak.**

23. artikulua. Baztango Udalaren menpeko erakunde edo zerbitzuen errotulazio, kartel edo afixa, ohar, eskuorri, berripaper edo bestelako argitalpenetan euskarari lehentasuna emanen zaio.

24. artikulua. Baztango Udalak eta haren menpeko erakunde eta zerbitzuek egiten dituzten bando, iragarki edo publizitate guztietan, hedabide idatzi, elektronikoa nola ikus-entzunezkoetan, euskarari lehentasuna emanen zaio.

25. artikulua. Baztango Udalak antolatzen dituen prentsaurreko, agerraldi eta jendaurreko ekitaldietan, berak bakarrik antolaturik nola bertze erakunderen batekin batera eginik, euskara erabiliko du lehentasunez, ahozko komunikazioetan nola idatzizkoetan.

26. artikulua. Kargodunen jarduera publikoetan lehentasuna euskarari emanen zaio.

## **VIII.-Toponimia eta seinaleztapena.**

27. artikulua. Baztango Udalaren menpeko zerbitzu, instalazio eta bulegoetan udalerriko leku izen ofizialak erabiliko dira. Baztango udalerriko toponimia nagusia 16/1989 Foru Dekretuan, urtarrilaren 19koan, eta 1994ko apirilaren 20ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratutako aldaketan jasota dago. Baztango udalerriko toponimia xehea 103/1995 Foru Dekretuan, maiatzaren 8koan, ezarrita dago.

28. artikulua.

28.1. Baztango Udalaren menpeko zerbitzu, instalazio eta bulegoetan udalerriko karriken izen ofizialak erabiliko dira. Baztango udalerriko herrietako karriken izenek euskaraz izanen dute izendapen ofizial bakarra.

28.2. Karrika berriei izena emateko (edo izena aldatzeko), aldian-aldian, udalerriko herriek Baztango Udalari euren izendapen proposamena egiten diote, eta Udalak, bere eskumenen barnean, karrika berriaren izen ofiziala ezarriko du.

28.3. Baztango Udalak, udalerrian etxeen izenek historikoki izan duten ohiko erabileraz jabeturik eta Baztango ondasun kulturalaren zatia direla sinetsirik,

## **VII.-Notas, publicaciones, anuncios, rotulaciones y actuaciones públicas.**

*Artículo 23.º En las rotulaciones, carteles o fichas, notas, folletos, boletines, publicaciones y demás publicaciones de difusión de los servicios o entidades dependientes del Ayuntamiento de Baztan se dará prioridad al euskera.*

*Artículo 24.º En los bandos, anuncios y publicaciones de difusión del Ayuntamiento de Baztan, las entidades dependientes de este y sus servicios, se dará prioridad al euskera, tanto en medios escritos, electrónicos o audiovisuales.*

*Artículo 25.º En los textos orales o escritos de las ruedas de prensa o apariciones públicas organizadas por el Ayuntamiento de Baztan o junto con cualquier otra entidad, se utilizará el euskera preferentemente.*

*Artículo 26.º En las actuaciones públicas de los cargos electos se garantizará el uso preferente del euskera.*

## **VIII.-Toponimia y señalización.**

*Artículo 27.º En los servicios, instalaciones y oficinas dependientes del Ayuntamiento de Baztan se utilizarán las denominaciones oficiales de los lugares y pueblos del municipio. La toponimia mayor esta recogida en el Decreto Foral 16/1989 del 19 de enero, así como en la modificación recogida en el Boletín Oficial de Navarra del 20 de abril de 1994. La toponimia menor esta recogida en el Decreto Foral 103/1995 del 8 de mayo.*

*Artículo 28.º*

*28.1. En los servicios, instalaciones y oficinas dependientes del Ayuntamiento de Baztan se utilizarán las denominaciones oficiales de las calles. Las únicas denominaciones oficiales de las calles del Municipio de Baztan serán en euskera.*

*28.2. La denominación de nuevas calles o el cambio de denominación de las calles ya existentes será propuesta al Ayuntamiento de Baztan por los lugares del Municipio y, el Ayuntamiento, dentro de sus competencias, establecerá la denominación oficial.*

*28.3. El Ayuntamiento de Baztan, teniendo en cuenta su uso histórico y con el convencimiento de que forman parte del patrimonio cultural de*

udalerriko etxeen izenak bereziki begiratuko ditu, eta Baztango Udalaren menpeko zerbitzu, instalazio eta bulegoetan euskararen arau ortografikoei loturik idatziko dira.

28.4. Baztango Udalak udalerriko Karriken Izendegi Ofiziala onartuko du, eta horri loturik erabiliko dituzte Baztango Udalak eta bere menpeko zerbitzu guztiek udalerriko karriken izenak.

29. artikulua.

29.1. Baztango Udalak udalerriko leku publikoetan jartzen dituen seinalizazioetan, goiti-beheitiko nola ezker-eskuinekoetan, interes orokorreko, informatibo, turistiko nola trafiko eta aparkalekuak arautzekoetan, eta antzeko guztietan, euskarari lehentasuna emanen zaio.

29.2. Seinalizazioen testua euskara hutsean idatziko da ondoko kasuetan:

a) Seinalizazioen hitzek euskaraz eta gaztelaniaz antzeko grafia dutenean.

b) Mezuak piktograma batez lagundurik direnean eta haren bitartez ulergarriak direnean.

## **IX.-Erregistroak.**

30. artikulua. Baztango Udaleko Erregistroan agiriak idatzita dauden hizkuntzan inskribatuko dira, eta dokumentua euskaraz eta gaztelaniaz badago, euskaraz. Erregistrotik luzatutako ziurtagiriak euskara hutsez edo ele bietan idatziko dira, euskarari lehentasuna emanez.

## **X.-Langileen euskalduntzea eta euskarazko alfabetatzea.**

31. artikulua. Baztango Udalaren helburua bere menpeko zerbitzu guztietan euskara zerbitzu eta lan hizkuntza izatea da.

32. artikulua. Aipatu helburua erdiesteko, Baztango Udalak bere lanpostuen hizkuntza eskakizunak zehaztuko ditu. Euskara Zerbitzuak proposatu eta

*Baztan, preservará especialmente las denominaciones de las casas del Municipio, y se utilizarán ateniéndose a las normas ortográficas del euskera en los servicios, instalaciones y oficinas dependientes del Ayuntamiento de Baztan.*

*28.4. El Ayuntamiento de Baztan aprobará el Callejero Oficial. El Ayuntamiento de Baztan y los servicios dependientes del mismo emplearán las denominaciones establecidas en dicho Callejero Oficial.*

*Artículo 29.º*

*29.1. En todas las señalizaciones, horizontales o verticales, de interes general, informativo, turistico, de tráfico, de parking o similares colocadas en el Municipio se dará prioridad al texto en euskera.*

*29.2. La señalización será redactada únicamente en euskera en los siguientes casos:*

*a) Cuando no existan diferencias significativas en cuanto a la grafía vasca o castellana de las palabras utilizadas en la señalización.*

*b) Cuando las señales vayan acompañadas de pictogramas y sean inteligibles mediante dichos pictogramas.*

## **IX.-Registros.**

*Artículo 30.º En los registros administrativos del Ayuntamiento de Baztan la inscripción de los documentos se realizará en la lengua en que se presente. En caso de que el documento presentado esté redactado en euskera y castellano, la inscripción se realizará en euskera. Los documentos emitidos desde el registro serán redactados en euskera o en bilingüe, dándole prioridad al euskera.*

## **X.-Euskaldunización y alfabetización del personal.**

*Artículo 31.º El objeto del Ayuntamiento de Baztan es que el euskera sea la lengua de servicio y de trabajo en todos los servicios dependientes de dicho Ayuntamiento de Baztan.*

*Artículo 32.º Con el fin de garantizar la consecución del objetivo mencionado, el Ayuntamiento de Baztan determinará el perfil*

Udaleko Euskara Batzordeak hizkuntza eskakizunak aztertuko ditu eta proposamena Udal Osoko Bilkurari helaraziko dio, horrek onets dezan. Hizkuntza eskakizunak Hizkuntza eskakizunak onartutakoan, eranskin gisa gaineratuko zaizkio ordenantza honi.

33. artikulua. Euskara ikasten lagunduko zaie Udaleko langileei, ordenantza honetan ezarritako helburuak bete daitezen. Hortaz, Baztango Udalak hizkuntza prestakuntzako planak antolatuko ditu helburu horiek betetzeko. Haietan lanaldiaren murrizketak, laguntza ekonomikoak eta ordezkapenak aurreikusiko dira.

34. artikulua. Hizkuntza eskakizuna betetzen duten langileek euskaraz eginen dute euren lana. Gainerakoek euskalduntze plangintzaren barnean euskarazko prestakuntza ikastaroak eginen dituzte eta, euskalduntzen doazen heinean, euren lana, egoerak hala eskatzen duenean eta ahal duten neurrian, euskaraz egiten hasiko dira.

35. artikulua. Baztango Udal Administrazioan, oposizio, lehiaketa, lekualdatze, igoera nahiz bertze edozein bidez lanpostu berri batera heltzeko, ezinbertzeko baldintza lanpostuari esleitutako hizkuntza eskakizuna betetzea da. Horretarako, Baztango Udaleko plantilla organikoko lanpostu bakoitzari esleitu zaion hizkuntza eskakizuna jasoko da.

#### **XI.-Langile berriak kontratatzea.**

36. artikulua. Baztango Udalak kontratatzen dituen langileak euren lan jarduera euskaraz eta gaztelaniaz egiteko gaitasuna izan beharko dute. Beraz, Baztango Udalaren menpeko erakunde eta zerbitzuetako lanpostuei esleitutako hizkuntza eskakizunak bete beharko dituzte lanpostuan jardun ahal izateko.

37. artikulua. Hizkuntza eskakizuna betetzen duen izangairik ez balego edo eskatutako maila inork gaindituko ez balu, lanpostua hutsik geldiko litzateke, berriz deialdia egiteko.

*lingüístico en la plantilla orgánica. Dicho perfil lingüístico será propuesto por el Servicio de Euskera y estudiado por la Comisión de Euskera, la cual presentará la propuesta al Pleno del Ayuntamiento con el fin de que sea aprobado. El perfil lingüístico se adjuntará a esta Ordenanza como Anexo una vez aprobado.*

*Artículo 33.º Se apoyará el aprendizaje del euskera entre el personal municipal, de forma que se asegure el cumplimiento de los objetivos establecidos por esta ordenanza. Así, el Ayuntamiento de Baztan organizará planes de formación lingüística dirigidos a la consecución de los citados objetivos. En ellos se prevén reducciones de horario de trabajo, ayudas económicas y sustituciones.*

*Artículo 34.º El euskera será la lengua de trabajo de los/as trabajadores/as del Ayuntamiento de Baztan que cumplan el perfil lingüístico establecido. El resto de trabajadores/as realizarán los cursos de aprendizaje de euskera establecidos por el plan de formación lingüística, y conforme vayan adquiriendo capacidades lingüísticas, si la situación así lo requiere y en la medida en que sea posible, comenzarán a realizar su trabajo en euskera.*

*Artículo 35.º En las oposiciones, concursos, traslados, promociones internas o cualquier otro medio de acceder a un nuevo puesto, se cumplirá estrictamente lo correspondiente a los perfiles lingüísticos establecidos. Con ese objeto se establecerá el perfil lingüístico correspondiente a cada uno de los puestos de la plantilla orgánica del Ayuntamiento de Baztan.*

#### **XI.-Contratación de nuevo personal.**

*Artículo 36.º Los empleados que contrate el Ayuntamiento de Baztan deberán estar debidamente capacitados para desarrollar sus funciones tanto en euskera como en castellano. Por lo tanto, deberán cumplir el perfil lingüístico correspondiente al puesto que vayan a ocupar en los servicios del Ayuntamiento o dependientes de este.*

*Artículo 37.º En caso de que los/as candidatos/as no acrediten el perfil lingüístico establecido o no superaran la prueba de nivel, el puesto quedará vacante y se realizará nuevamente la convocatoria.*



38. artikulua. Bajak, eszedentziak eta bertzelakoak ordezkatzeko, lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna izatea nahitaezkoa izanen da.

## **XII.-Euskararen erabileraren sustapena Baztango udalerrian.**

39. artikulua. Euskara gizarte esparruan erabili dadin eta, oro har, gizarte bizitzan euskararen erabilera handitzeko, neurri egokiak hartuko ditu Baztango Udalak. Beraz, euskararen ezagutza handitu eta erabilera ziurtatu eta gizartearen esparru guztietan orokortzeko helburuz, ahalegin berezia egingen du Baztango Udalak.

40. artikulua. Udalak behar diren neurriak hartuko ditu, bere eskumenen esparruan, Baztango Udalerrian abiapuntua, helmuga edo geralekua duten garraio publikoek euren errotulu, inprimaki, ohar eta adierazpen guztiak ele bitan egon daitezzen, euskarari lehentasuna emanez.

41. artikulua. Baztango Udalak, udalerrian egiteko, diruz laguntzen dituen kultura, kirol edo bertzelako jarduera eta aktibitateetan, bai eta haien idazki, iragarki nola karteletan ere, euskarari lehentasuna eman beharko diote antolatzaileek.

42. artikulua. Baztango Udalak euskara erabiltzeko gonbita egingen die udal instalazioak eta materiala erabiltzeko eta besta egunetan barrakak paratzeko baimena eskatzen dutenei. Horrekin batera, Udalak jakinaraziko die, behar izanez gero, Udaleko Euskara Zerbitzuaren hizkuntza aholkularitzaz baliatzen ahal direla.

## **XIII.-Ordenantzaren segimendua eta euskararen erabilera sustatzeko azpiegitura.**

43. artikulua. Baztango Udaleko Euskara Batzordeak, Euskara Zerbitzuaren bidez, eskumena izanen du ordenantza hau betetzen ote den jarraipena egiteko eta, xedea bermatu beharrez, edozein gairen gainean proposamenak egiteko.

44. artikulua. Udaleko Euskara Batzordea eztabaidarako elkargunea izanen da: Udalaren hizkuntza normalizazioaren ardatzak finkatu eta berrikusteko irizpideak emateaz arduratuko da. Euskara Zerbitzuak laguntza teknikoa eta beharrezko azpiegitura emanen dizkio.

*Artículo 38.º Será necesario acreditar el perfil lingüístico establecido para cubrir bajas, excedencias y demás.*

## **XII.-Fomento del uso del euskera en el Municipio de Baztan.**

*Artículo 39.º El Ayuntamiento de Baztan tomará las medidas pertinentes para el fomento del uso del euskera en la sociedad y en la vida social. Por lo tanto, el Ayuntamiento de Baztan hará un esfuerzo significativo con el objeto de aumentar el conocimiento del euskera, garantizar y fomentar su uso en todos los ámbitos de la sociedad.*

*Artículo 40.º El Ayuntamiento tomará las medidas pertinentes, dentro de su ámbito de competencia, para que la rotulación, documentación, avisos y demás publicaciones informativas de los servicios de transporte públicos que tengan su salida, llegada o paradas en el Municipio de Baztan se realicen en bilingüe, dando prioridad al euskera.*

*Artículo 41.º Se dará prioridad al euskera en las actividades deportivas, culturales y demás, y en sus documentos, anuncios, carteles, fichas y demás publicaciones informativas que reciban ayuda económica del Ayuntamiento de Baztan.*

*Artículo 42.º El Ayuntamiento de Baztan recomendará el uso del euskera a los/as solicitantes de permisos para la utilización de material e instalaciones municipales así como para la instalación de barracas en días festivos. Así mismo, informará a dichos solicitantes de que pueden disponer de la ayuda técnica del Servicio de Euskera en caso necesario.*

## **XIII.-Seguimiento de esta Ordenanza e infraestructuras para el fomento del uso del euskera.**

*Artículo 43.º La Comisión de Euskera del Ayuntamiento de Baztan, mediante el Servicio de Euskera, queda capacitada para realizar el seguimiento del cumplimiento de esta ordenanza y para hacer propuestas sobre cualquier materia que lo garantice.*

*Artículo 44.º La Comisión de Euskera Municipal constituirá un órgano de discusión: establecerá las líneas de actuación para la normalización lingüística así como los criterios para su revisión. Contará con la ayuda técnica y la infraestructura del Servicio de Euskera.*

45. artikulua. Euskara Zerbitzua arduratuko da euskaraz egiten den lana planifikatu, idatzi eta gainbegiratzeaz. Horretaz gain, langileei jatorrizko dokumentuak euskaraz idazten lagunduko die.

### **XEDAPEN GEHIGARRIAK**

Lehena.- Baztango Udalak onartzen dituen gainerako ordenantza eta xedapenek ordenantza honetan jasotakoekin bat egin beharko dute.

Bigarrena.- Baztango Udalak, udal zerbitzuetan euskararen erabilera arautzeko eta udalerrian euskararen erabilera sustatzeko ordenantza honen emaitzen azterketa eta berrikuspena egiten du, indarrean sartu eta handik bortz urtetara, lehenago berrikustea egoki ez bazaio iruditzen.

Hirugarrena.- Ordenantza honen aplikazio eta garapenerako beharrezkoak diren xedapenak onetsi eta bultzatuko dituzte Udaleko organo betearazleek.

### **XEDAPEN INDARGABETZAILEA**

Baliorik gabe geratzen dira ordenantza honen maila berekoak edo txikiagoak izanik, ordenantza honetan xedatutakoarekin bat ez datozen edo kontrajarrita dauden erabaki guztiak.

### **AZKEN XEDAPENAK**

Lehena.- Ordenantza honen aplikazio eta garapenerako beharrezkoak diren xedapen eta programa bereziak erabaki eta bultzatuko dituzte Baztango Udaleko organo betearazleek.

Bigarrena.- Ordenantza honek beraren behin betiko onspenaren erabakia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hamabortz egun iraganda hartuko du indarra.

*Artículo 45.º El Servicio de Euskera planificará, redactará y revisará el trabajo realizado en euskera. Asimismo, prestará ayuda técnica a los empleados del Ayuntamiento para redactar documentos en euskera.*

### **DISPOSICIONES ADICIONALES**

*Primera.- El resto de las ordenanzas y disposiciones que apruebe el Ayuntamiento deberán asumir en todo lo que les concierna las disposiciones que se recogen en esta ordenanza.*

*Segunda.- El Ayuntamiento de Baztan realizará el análisis y la revisión de esta ordenanza reguladora del uso y fomento del euskera en los servicios municipales y en el Municipio pasados cinco años desde su entrada en vigor, o antes de esa fecha si lo creyera necesario.*

*Tercera.- Los órganos ejecutivos del Ayuntamiento aprobarán e impulsarán las disposiciones y actuaciones que sean necesarias para la aplicación y desarrollo de esta ordenanza.*

### **DISPOSICIÓN DEROGATORIA**

*Quedan invalidados todos los acuerdos de igual o inferior rango a esta ordenanza, que se opongan o incurran en contradicción con lo dispuesto en la misma.*

### **DISPOSICIONES FINALES**

*Primera.- Los Órganos Ejecutivos del Ayuntamiento de Baztan resolverán y fomentarán los programas específicos necesarios para la aplicación y desarrollo de esta ordenanza.*

*Segunda.- La presente ordenanza producirá efectos jurídicos desde el decimoquinto día de la publicación en el Boletín Oficial de Navarra del acuerdo de aprobación definitiva junto con el texto íntegro de la ordenanza.*